

Prentsa-oharra

Maier Technology Centre IK4-TEKNIKERen patrono egin da

- ▶▶ *I+G+Bko bi zentroak lankidetzan arituko dira automobilgintzan eta etxetresna elektrikoaren sektorean produktu berritzaileak garatzeko*
- ▶▶ *I+G+Bko diru-sarreretan %6ko igoerarekin itxi du 2015eko ekitaldia IK4-TEKNIKERek*
- ▶▶ *Eibarko zentroaren aurreikuspenen arabera, 2016an gora egingo dute bai diru-sarrerak bai ikertzaile-kopuruak.*

(Eibar, 2016ko urtarrilaren 26a).- Maier Technology Centre (MTC), Maier automobilgintzako eta etxetresna elektrikoetarako osagaien EAEko fabrikatzailearen zentro teknologikoa, IK4-TEKNIKERen patronatuan sartu da, zentro teknologikoaren gobernantzan parte hartzeko asmoz.

IK4-TEKNIKERen patronatuak abenduaren erdialdean egin zuen batzarrean onartu zuen patronotza hori, eta, hala, indartu egiten da bi erakundeek hainbat urtetako lankidetzaren ondorioz eraiki duten lotura. Hain zuzen, joan den urrian Eibarko zentroaren erakunde laguntzaile egin zen MTC; patrono gisa sartu aurretik formalizatu beharreko urratsa da. Erakunde laguntzaileek bi erakundeen ezagutza batzea dute helburu, elkarrekin produktu teknologikoki aurreratutako eta zerbitzu berritzaileak garatzeko.

“Harremana hartuz zihoan garrantziarekin, eta hazteko zuen potentzial guztiarekin, beharrezkoa zen egitura egonkorrago batean sartzea”, adierazi du Alejandro Bengoa IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusiak.

Hitzarmen horren bidez, bi zentroek beren estrategia teknologikoak parteka ditzakete, enpresaren beharrekin bat etor daitezten. Garapen teknologikoko programa planifikatuak ere zehaztu ahal izango dituzte, are gehiago finkatzeko MTCK nazioartean duen lidergo-posizioa berak garatzen dituen produktuetan.

Gainera, bi erakundeen arteko konpromiso horri esker, IK4-TEKNIKERek enpresa laguntzaileentzat duen onura-programan sar daiteke Maier Technology Centre. Programa

horrek eragileen arteko harreman estrategikoa sustatzen du, eta aukera ematen du I+G+Bko lankidetzaren harreman iraunkor bat lortzeko.

Erakunde laguntzailea, aukeren aliantza bat

IK4-TEKNIKERen erakunde laguntzaileek zenbait abantaila dituzte; esaterako, elkarrekin egindako proiektuak sustatzea eta garapenei buruzko informazio pertsonalizatua eta aurreratua izatea.

Maier Technology Centre IK4-TEKNIKERen erakunde laguntzaileen taldera biltzea zentroak beste enpresa batzuekin egin dituen antzeko aliantzen testuinguruan ikusi behar da. Gaur egun, 22 erakunde laguntzaile ditu.

IK4-TEKNIKERek MTCrentzat egiten dituen ekarpen garrantzitsuenen artean azpimarratzekoa da zentro teknologikoak duen ezagutza handia gainazal-tratamenduetan aplikatzen diren fabrikazio-teknologietan, automatizazioan eta prozesuak eskalatzen.

Ajangizzen dago (Gernikan) MTC, Arabietako industrialdean. 1995ean sortu zen, plastikoen sektorean erreferente bat izateko. Gaur egun, automobilgintzako enpresei zerbitzuak ematen dizkie.

2015, mugarren urtea IK4-TEKNIKERentzat

Joan den abenduaren 26ko batzarrean berretsi zen MTC IK4-TEKNIKERen patronatuan sartzea, eta, horrez gain, zentro teknologikoaren aurreko urteko behin-behineko emaitza ekonomikoak aurkeztu ziren batzarrean.

IK4-TEKNIKERek langile-kopurua, 272 lagun, mantenduta itxi zuen 2015eko ekitaldia.

Gainera, zentroak aurreikusten du ikertzaile gehiago izatea 2016an.

2015eko I+G+Bko diru-sarrerak totalak %6 igo dira 2014koarekin alderatuta, enprekin %5 proiektu gehiago kontratatu direlako, batez ere.

Igoera horri esker, ekipamendu berrietan inbertitu du zentro teknologikoak. Haien artean nabarmentzekoa da, nanopartikulak sortzeko iturri bat (NanoGen Trio, Mantis), ihintadura katodikoaren teknologian oinarritua. Iturri horren bidez, nanopartikulak purutasun handiz fabrika daitezke, atmosfera kontrolatu batean sortzen baitira, eta tamaina izugarriko doitasunez kontrolatu daiteke.

Teknologia horren bidez fabrikatutako nanopartikulen aplikazioak askotarikoak dira; besteak beste, terapia medikoak, datu-biltegitratzea, elektrizitatea sortzea eguzki-zelula fotovoltaiko bidez eta erregai-pila bidez, biosentsoreak eta aplikazio optoelektronikoak.

Hazkunde handiagoa 2016an

IK4-TEKNIKERek 2016an haztea aurreikusten du, eta nola diru-sarrerak hala langile-kopuruak gora egitea.

Hasi berri dugun urte honetarako zentro teknologikoak estrategia hau du: indartzen jarraitzea enpresekin, klusterrekin, erakundeekin eta bestelako plataformekin duen lankidetzan.

Gainera, IK4-TEKNIKERek aurreikusten du lubrifikazioari, mantentze-lan industrialei eta tribologiari buruzko nazioarteko **LUBMAT** 2016 biltzarra antolatzea —ekainean izango da—, eta erakusketari izatea makina-erremintaren bi urtez behingo Espainiako azokan, **BIEMH** 2016n.

Horrez gain, 4.0 industriaren alde egiten jarraituko du zentro teknologikoak 2016an.

MTCri buruz

Maier automobilgintzarako eta etxetresna elektrikoetarako osagaien eta azpimultzoen fabrikatzaileak bere zentro teknologikoa du, Maier Technology Centre, eta Arabietako industrialdean dago, Ajangizen (Gernika).

MTC 1995ean sortu zen, plastikoen sektorean erreferente bat izateko. Gaur egun, automobilgintzako enpresei zerbitzuak ematen dizkie. Zentro teknologikoak gune funtzionalak ditu. Horietan, azpimarratzekoak dira hauek, besteak beste: saiakuntza kimikoen laborategi bat eta saiakuntza fisikoen beste laborategi bat; pabilioi bat ikerketetan erabilitako makinekin, quick meetingeko gela berriak eta produktuak erakusteko gela bat.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniariak, produktu-ingeniariak eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | tel.: 637 273 728